

# URUMEAKO Kronika

2016/09/13



PDF

**HERNANI** Irailak 13



Arantxa Tapia sailburuarekin bildu ziren sektoreko elkarteetako ordezkariak.

[albistea//SAGARDOGINTZA - JATORRIZKO IZENDAPENA](#)

## ‘Euskal Sagardoa’, bertako sagarrarekin

Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako sagar eta sagardogile elkarte guztiek bat egin dute, ‘Euskal Sagardoa’ Jatorri Izendapena sortzeko. Eusko Jaurlaritzan erregistratu dute eskaera.

**HERNANI ASTIGARRAGA**

2016/09/10 00:00 Larunbata

Astelehenean Eusko Jaurlaritzan izan ziren Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako sagar eta sagardogileen elkarteak, ‘Euskal Sagardoa’ Jatorri Izendapena erregistratzeko.

Arantxa Tapia sailburuarekin elkartu ziren, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila baita Jatorri Izendapenaren aurreneko faseko tramiteak egiteko arduraduna.

### Bertako sagarra eta kalitatea, helburu

«‘Euskal Sagardoa’ Jatorri Izendapenaren helburu nagusia da bertako sagarrarekin egindako sagar-

doari duintasuna ematea, eta Elkarrekin eta Administrazio desberdinen artean lan egiteko marko bateratua sortzea», azaldu dute sektoreko ordezkariak.

Hain zuzen, izendapena erregistratzeko eskaerarekin bat egin dute Arabako Sagar eta Sagardogileen Elkarrekin, Bizkaiko Sagardogileen Elkarrekin, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarrekin, Sagardo Mahaia Elkarrekin, Sagar Uzta Elkarrekin, Bialka Elkarrekin eta Fruitel Elkarrekin; «Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Sagar eta Sagardogile Elkarrekin %100ak».

Era berean, bi zutabetan oinarritu dute proiektua: bertako sagarra eta kalitatean. «Bertako sagarrari dagokionean, sektorea apustu garbi bat egiten ari da azken urteetan, azterketak eginda sagasti berriak aldatu eta sagarrak hobeto ezagutzeko, heldutasun puntu egokiak bilatzeko eta abarrerako. Helburua da, zenbait urteren buruan Euskadin beharrezko den sagar guztia bertan sortzea, eta horretarako, ‘Euskal Sagardoa’ Jatorri Izendapena ezinbesteko lanabesa izango da. Bigarren zutabe garrantzitsua kalitatea da, derrigorra etorkizuneko Jatorri Izendapenean», azaldu dute.

**Merkatuan, lehenbailehen**

Honekin, azken urteetako lana indartu du sektoreak, «bertako sagarraren alde eta jatorria eta kalitatea ziurtatuta dituen sagardoaren alde», eta ‘Euskal Sagardoa’ Jatorri Izendapena duten aurreneko botilak lehenbailehen merkaturatzea espero dute.

[Txikatu](#)

Izena\*


Eposta helbidea\*

Iruzkina\*

Captcha\*

Bidali

Aurreikusi





GEHIGARRI BEREZIA



**HERNANI**

*Irailak 13*

## Puri-Purian

*'Euskal balezaleen triskantza' ... (2)*

*Begiratu eta pentsatu ... (1)*

*Animatu Barrenetxea eta ... (3)*

*Bertso berriak, isiltasunari ... (1)*

*Biterin ikastaroren bat ... (1)*

*«Gutxienekoa iruditzen zaigu, ... (1)*

*Hernaniko hondakin bilketa ... (2)*

*31 ikastaro aukeran, ... (1)*

*Arre arre mandako, ... (2)*

*«Gertatutakoa akats larria ... (1)*

## Gida komertziala



Komertzio bat bilatu

Bilatu



## Mahuka

Denboraldi berria jada Mahukan

## Iragarki merkeak

*ETXEKO KONPONKETAK egiten dira;  
iturgintza, elektrizitatea, pintura,  
berogailuak, persianak... Seriotasuna.*

**Telefonoa: 616886660**

*Iñigo Royo Masajista. Masajea,  
naturopatia, osteopatia, kinesologia,  
reiki, homeopatia, akupuntura...  
(Agustindarren plaza, 4)*

**Telefonoa: 943332894**

+ Ikusi

Tweets por @KronikaNet

### Gaur



30°

15°

### Bihar



18°

14°

### Etzi



19°

11°

[Aemet](#) eskaintako datuak

**Azken argazkiak**



Gabon, Txirrita



Zikuñagako jaiak - Iga...



Erremontea - Banakako ...



Zikuñagako jaiak 2016 ...




Latsunbeberri-Marielut...



Latsunbeberri-Marielut...

## Azken bideoak



Hernaniko Gazte Olinpiadak 2016



Mahai ingurua, alkategaiekin



Korrika 19 - Hernani / Astigarraga



Korrika Txikia 2015



Uholdeak Urumea bazterretan



Hernanik 1000 urte

#### ARGITARATZAILEA



#### ZEIN GARA



#### KONTAKTUA

Larramendi kalea 11 - Hernani 20120

Telefonoa: 943 33 08 99 / 688 660 714

E-maila: [kronika@kronika.eus](mailto:kronika@kronika.eus)

[astigarraga@kronika.eus](mailto:astigarraga@kronika.eus)

[urumea@kronika.eus](mailto:urumea@kronika.eus)



#### LAGUNTZAILEAK



Legezko oharra